

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Beasaingo (Gipuzkoa) «La Salle-San José» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Haur Hezkuntzan 1. zikloko unitateak gehitzeko baimena emateko dena.@@@

Beasaingo (Gipuzkoa) «La Salle-San José» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bat gehitzeko.

Espediente hori Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) (215/2004 Dekretua, 2004ko azaroaren 19ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bat gehitzeko, 2011-2012 ikasturtetik aurrera:

Kode-zenbakia: 20000703.

Izen espezifikoa: «La Salle-San José».

Titularra: Asociación Junta Administrativa Colegio San Martín de Loinaz.

Helbidea: Andra Mari 2

Udalerrria: Beasain.

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bat gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 4 unitate, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; 18 ikaspostu, unitateko.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostu.
- Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 300 ikaspostu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikaspostu.

- Hezkuntza Berezia: 3 unitate.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntza deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.